

Ganbara

Urt Zubiaurre Otamendi



Zumalako
Udala



Z ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

*enkarra
txanpan*

Ganbara

Urt Zubiaurre Otamendi

Julene Azpeitia 33. ipuin lehiaketa

2020

2. saria

2020ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Urt Zubiaurre Otamendi (ipuinaarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

BARKA DIEZAGULA Jainkoak, barka nazala Ahalguztidunak. Batez ere egun hartakoa hainbeste urtean inori ez kontatzeagatik. Urte mordoa igaro baita, eta inoiz ezin izan dut burutik kendu ganbarako oihu isilen zarata hura. Ezta nire nagusia gorantz zeramataneko irudia. Ezta etxeakoandreak bota zizkidan mehatxuak ere.

Hala eta guztiz, ez dut uste damuaren eragina denik. Batzuetan bai baitakizu gauza batek ez zuela bukatzeko beste modurik, alegia, derrigor amaitu behar zuela gaizki; eta, ondorioz, dena geratu dela isilpean, isilpean geratu behar zuelako. Baina horrek ez dizu loa errazten. Neguko zatirik beltzena hasten denean, eta haize zakar hori nire balkoiko egurrak bultza eta bultza aritzen denean, bi, hiru, lau ordu behar izaten dut loak hartzeko, eta zahartu ahala okertzen joango zait gaitza.

Gizalegea izango da akaso. Gaztea zarenean, etorkizunak dakarkiena da inporta zaizuna, atsedena galarazten dizuna. Orain, ordea, gero eta sarriago pentsatzen dut iragan gauzetan, eta, esan bezala, garbien datorkidan oroitzapena baserri hartan eta egun hartan jazotakoa da. Nire nagusiaren oihuak azken aldiz entzun nituenekoa.

GOIZ HARTAN, duela berrogei urte, San Anton eguna zen. Amak urtebete luzea zeraman gaixorik, baina haren benetako gaixotasuna ez zen gorputzaren baitakoa. Esan nahi dut gorputza zisko egina zuela, egia, baina aspaldi utzia ziola minaren kontra borrokatzeari. Eta medikua etortzen zitzaigunean ere ez ziola jaramonik egiten.

Berandu konturatu nintzen zergatik zeukan halako jokabide uzkurra. Amaren ustea zen mina guztiz merezia zuela, eta uste zuen medikuaren bisitak ez ziola baizik merezimendu hori argi eta garbi adieraziko. Medikuek –gertatu zen moduan hain zuzen– aipatuko ziola salbamenaren ezina, eta berak orduan eta garbiago izango zuela gaitz hura erruaren ondorio zela.

Bestalde, jabetu nintzen jada ez zela herrira jaisten. Lehenago beti izan zuen herrira joateko kerentzia gure amak. Dendak eta kaleak, plazak eta elizak eskaintzen zioten, hain etxalde apartatuan bizita, komunitatearen parte sentitzeko parada. Herrian batera jokatzeko zuten jendeak, batera erosten zuten, elkarri bakea ematen zion, eta ondorengo hizketaldietan egoten zen gustura gure ama, eta emazteak esan izan didanez beti goizean baino alaiago itzuliko zitzaizun eguerdian.

Hasieran ez nituen bi gauza hauek uztartu. Banekien lehengo zaharrak horrelakoak zirela hamarretik zortzi. Medikuekin aurrera joatea gauza beltza zela haientzat. Gizaseme hura zitzaiela munduko gizonik arrotzena, beldurgarriena. Baina andreari entzundako pare bat komentariok, artaleei buruzkoak, artoa ezin polikiago aletzeari buruzkoak, bastante arduratu ninduten. Orduan hasi baitzen gure ama jokabide arraro horretan. Orduan hasi zitzaigun ganbarara ezkutuan igotzen, inori ezer esan gabe, eta han emango zituen orduak: bi, hiru, lau ordu ere batzuetan. Artoa aletzen ariko balitz bezala. Gorputzeko oinazearen poderioz amak buruak galdu zuela bururatu zitzaidan, eta nik ere negar ugari egin nuen tailerrean, ohitura gaizto hura hogeit hamar hilabetez mantendu baitzuen dohakabeak inork ez dakiela zergatik.

Nik ez bainuen besterik nahi: gure amak bukaera ona izan zezala. Horixe nahi nuen: amaiera barea, ahalik eta bide lasaienak eramanez zezala heriotzako portura. Baina ez zen horrela gertatu. Bi urtez burua galduta egon eta gero, ilbeltzeko egun batean joan nintzen aspaldi zapaltzen ez nuen elizara.

NIRE AMAGINARREBA emakume ona zen. Bertzeren etxera ezkontzean beti izaten du norberak izu ikaragarria. Uste baitu agian ez dutela nahi bezain atseginez hartuko. Nire bi ahizpa zaharragoengan ikusi dut hori. Nolatan ezkondu ziren etxetik urrun, eta haien tokia bilatzen nahikoa lan ukan zutela;

eta senarraren gurasoekin izan zituzten nahigabe franko kontatu dizkidate. Eta behin eta berriz pairatutako itsusikeriak ere bai.

Niri ordea kontrakoa suertatu zitzaidan. Senarrak denbora anitz pasatzen zuen burdinolan. Goizetik gauera arte gehienetan. Eta amaginarreba eta biok egoten ginen etxean, hura oso goiz alargundua baitzen; eta nik kasik alargun baten bizitza baineraman. Baina lehen egunetik sumatu nuen harentzat ni ez nintzela ez traba, ez arerio, ez etsai. Lehen egunetik sumatu nuen poztu egin zuela nire etorrerak, eta konpainia izateko txirrinta zuela emakumeak.

Horregatik, baserriko ataka ez ezik, parez pare zabaldu zidan bere bihotzeko atea. Hitz egin zidan ume zen aroaz, gerraz eta gerraosteaz. Azaldu zidan nola umezurztu zen behar baino goizago, eta, ahizpa nagusia izaki, guraso papera bete behar izan zuela familian. Neba-arrebak bere seme-alabak bailiran hezi behar izan zituela, baserriko lanak denak erakutsi eta banatu: nork belarretan jardun, nor merkatura jaitsi, nor sukalderatu. Eta beste mila kontu erabaki behar izan zituen. Gauza horiengatik nuen nik hainbeste gurtzen emakume hura.

Ordea, baziren ere hamaika kontu haren arima urratzen zutenak. Zeren eta anitz irakatsi behar duenak anitz agindu behar izaten baitu. Eta anitz maite duenak, nolatan ez, anitz sufritu ere bai. Erran nahi dut gure amaginarrebak ezin izan zuela gaztaroan nahi bezain goxo aritu. Hau da, baserriaren salbatzeko, azkenik, neba-arreba gazteak etxetik bidaltzeko premia izan zuela. Eta horrek guztiak min sakona eragiten ziola barruan.

Baina lortua zuen trantze hori zertxobait baretzea. Elizara joango zitzaizun egunero. Eta beti alai itzuliko zitzaizun handik. Jainkoarekin denok ukan ohi dugun lehia izanagatik, azkenerako, Jaunaren lagun egin den emakumea begitantzen zitzaidan. Eta, gainera, biziki eskertzen zidan nik etxeko lanak egin eta hari goizean elizara joateko bide ematea.

Halako batean, ordea, muin-muinetik bortxatu zuen zerbaitek. Eta jada arratsaldeko pasieratan, fabrika zaharreraino hurbiltzen ginelarik, behin eta berriz aipatzen zizkidan bizitzan egindako bekatuak. Basoan sartzen ginenean ahoan izaten zituen bere neba-arreba koittaduak, bai eta bizilagunekin inoiz izandako iskanbilak, gaizkiulertuak, hitz gogorak... Eta basotik irtetean ere gauza berdintsuak aipatzen zizkidan berriz. Nola ezkonarazi zituen hiru ahizpa

gazteagoak behar baino lehenago; nolatan haiek ez zeuden prest oraindik baserri ezezagunean jarduteko. Eta nola mutikoak, garaiko usantzari jarraituz, morroi sartu zituen auzoko etxeetan.

Hainbertze bider kontatzen zizkidan ustezko bekatu haiek, ezen hainbat eta argiago irizten bainion emakume hura gogo-gaixotzen ari zena. Ez baita normala arratsalde orotan gauza beltzak eta egindako okerrak baizik ez kontatzea. Edo are eta gauza aldrebesagoak, azken egunetan artoa aletzeari ekingo ziola esaten baitzidan, arto aleak kendu eta kendu ariko denaren istorio sorgindu hori bertzerik ez nion aditzen. Eta sabeleko mina hasi bezain laster jakin nuen egia: arimako beltzune horien atarramendua zela guztia.

Bide batez, galdera bitxiak egiten zizkidan. Infernuari buruz zer iritzi nuen galdetzen zidan itaun haietan, baina ez zidan kasurik egiten gauza horiek ezin jakin daitezkeela ihardesten niolarik.

Poliki-poliki, sasoi eta kemen biziko emakume hark, gogo bizkorra ukan eta tximista bezain fite mugitzen zenak, etxearen barrurantz egin zuen. Ez zuen herrira joan nahi izaten, eta nire konpainiak eta solasak ere deus gutxi laguntzen ahal zion. Baina suertatu ziren bai gauza gaiztoagoak. Goizaren erdian, sukaldera sartu eta topatzen ez nuenean, ganbararen erdian topatzen bainuen emakume hura geldirik.

Egin kontu gure etxean ez zela ganbara baino leku ilunagorik. Ere muhotza zen sabaikoa, eta ni anitzetan saiatu arren ez zen hura tentuz garbitzeko manerarik. Armiarmak eta euliak jaun eta jabe ziren bertan. Bada, hantxe eserita egoten zitzaigun amaginarreba. Orduak eta orduak egurraren gainean. Eskuak igurzteari ekiten zion, artaleak zuritu behar zituela erranez. Dohakabeak ez zuen bistarik kentzen bere eskuetatik, eta buru-belarri arituko zitzaizun ariketa ikusezin horretan murgildurik. Zutitu eta behera jaisteko erreguak batere balio ez zuelarik.

Senarrari segituan erran nion amaren jokabidearena, baina dirua hartu eta medikua ekartzea izaten zen bere ideia bakarra. Pobrea izaki, tematua zen diruak min guztiak sendatzen ahal dituela, baina haren asmoak ez zuen deusetarako balio izan. Eta azkenik, behar baino anitzez beranduago heldu zen etxeko erleen abisua, une hura zeinetan badakizun baserriko norbaiten arnasak geldotzen ari direla, eta korrika joan nintzen senarraren tailerrera,

amak beste mediku baten premia zuela esatera. Alegia, herriko apaizaren premia.

MEZA AMAITZEKE, hantxe azaldu zitzaigun gizona. Ez zen ausartzen erretorearengana hurbiltzen, eta ez zen ez harritzeko gauza. Elizan ez nuen sekula ikusia, eta horrelako gizon bizardunek izu terriblea sentitzen dute elizaren baitan direnean, eta kosta egiten zaie ikara horiek gobernatu eta apaizari zuzenean begiratzea.

Baina ezagun zen arrazoi sakona zuela guganaino heltzeko, ze hauspoa hartu eta nire nagusiarengana etorri baitzen azkenik.

Hark, jakina, ez zuen begi onez jaso. Hiru urte baino ez zeraman herrian apaiz, eta hala eta guztiz ere ongi baino hobeto zekien nor etortzen zen mezatara egunero eta nork egiten zuen lantzean behin. Eta nor ez zen sekula elizaratzen, hori ere argi baino argiago zeukan. Eta, jakina, azken sailekoak bekatari eta bizioso gaiztoen gisara tratatzen zituen nire nagusiak.

Gizona hurbildu eta zuka hasi zitzaionean ere dezente belztu zitzaion begitartea. Tratamendu hura ez zitzaion batere gustatu. Orduan jarri baitzuen nik hainbeste gorrotatzen nuen aurpegi zurbil hori, oihal bat izango balu bezala. Eta gizonak artean esaten zion baserrira lagundu behar geniola, ama hilzorian zutela eta deskantsua behar zuela andere gaizoak.

Baina ez pentsa nire nagusia berehalakoan mugitu zenik. Ez, noski. Dezente itxaronarazi zion gizon bizardunari, sakristian enkargu batzuk egin behar zituela eta. Nahita ariko zen seguru aski. Nik inork baino hobeto ezagutzen nituen jarduteko molde haiek, nolatan gustatzen zitzaion eliztarrak ahal bezainbeste makurraraztea. Eta zenbateraino kapaz zen bere asmoa betetzeko.

Ni haren morrontzan hasi eta segituan zintzurreraino sartu zidan inor ez nintzelako sentazioa. Eta baita haren elizako ardiei ere. Baina ez pentsa baserritar hura nire ezpalekoa zenik. Ausarta zen alafede, eta behin eta berriz aipatzen zigun amaren kinka larria, eta seguru nago apaizarekin ariko ez balitz, besotik hartu eta idiari tiraka moduan eramango zuela baserrira.

Eta hala, gehiegi luzatu gabe, joan ginen basoan barrena, eta ikusi nuen nolatan herri hark bazituen nik ezagutu gabeko hamaika leku. Pinu-sailen atzetik mendialdera luzatzen ziren bailaratxoak. Ordu luzeak gertatu zitzaizkidan bidaiarenak. Eta are luzeagoak egingo zitzaizkion etxekogizonari, logelara sartzean haren ama zuri-zuri baitzegoen jadanik. Eta begiak erdi itxita eta arnasa itotzeko zorian.

NIK USTE nuen, ama nola zegoen jabetu eta aise aldatuko zitzaiola aldartea apaizari. Orduantxe utziko zituela bere harrokeriak eta bere patxadak. Berdin zidan ni hain era petranean hartu izana, ez bainintzen inoiz elizara joaten, eta jabe nintzen ez ninduela begi onez jasoko. Ama ordea oso fededuna genuen. Betidanik ezagutu izan nion erlijioaren sena pizturik; beti ari zen otoitzean eta niri gauzak horiek zaintzeko eskatuz. Nahiz eta azken sasoiari, gorputzeko eta buruko gaitzak medio, ezin izaten zuen herrira joan.

Alabaina, etxera sartzean ez zuen apaizak bere portaera moldatu. Amaren agoniari kasurik egin gabe, jo eta su ekin zion latinez mintzatzeari, eskuak garbitzeari eta letania bitxiei. Morroiak ur bedeinkatua eta olioak ekarri zitzaizkionean, eta Pilatok bezala eskuak garbitu zituztenean, haren begietan igarri nuen gertatuko zena, ez ziola amari bertatik bertara hitz egingo, baizik eta olioak kopetan igurtziko ziola soilik, amaren eskuak eta oinak ukitu gabe, amaren begietara eta belarrira inolaz ere hurbildu gabe. Horrela joan baitzitzaigun ama mundu faltsu honetatik. Horrela amaitu zen bi urteko agonia, ganbarako lanaren zoramen hura. Amaren arnasestuak gero eta mingarriago gertatu zitzaizkion azken orduan, begiak inoiz baino irekiago zituen. Eta belabeltz hark, halere, ez zion azala ezertarako laztandu.

Ikusirik zer amaiera itsusian zendu zitzaigun, eta ikusirik apaizak segituan hasi zuela gaubeila eta hiletak prestatzeko tenorea, sutu egin nintzen neroni. Apur bat geratzeko esan nion. Jakin nahi nuela, batetik, zer dela-eta ez zion amari deus lasaigarrikerik esan, zer dela-eta ez zuen haren belarrira hurbiltzeko imintziorik txikiena ere egin. Alegia, emakume hark ez ote zuen merezi hitz samurren bat edo beste.

Bestetik, ezin ahaztu nuen ordura arteko interes falta ere. Ez al zegokion herriko apaizari gaixoak bisitatzea? Ez al zen hori parrokoaren zereginetako bat?

Eta orduan bota zizkigun inoiz ahaztuko ez ditudan sententziak, esanez guk ez genuela haren ministerioa ulertzen, ez ginela mezarara joaten eta horrek itsu bilakatzen gintuela bai haren bai Jainkoaren aurrean. Esan zigun, halaber, ez zela zilegi barkamenari buruz horren merke hitz egitea. Amak ez ezik, pertsona orok zeramatzala barruan arantzak, eta horiek beste munduan neurtu behar zirela, edozein kristaurenak bezala hain justu. Eta gero ez larritzeko eskatu zigun, harro. Esan zuenez, sakramentua eta azken igurtzia zen munduko zikinak garbi zitzakeen gauza bakarra, eta dohain hori beti ematen zien Jainkoak bera bezalako gizon sakratuei. Alajaina, gure ama, konturatu ala ez konturatu, bake osoan iragan zela beste mundura.

APAIZAK HITZ horiek isuri bezain laster jakin nuen zer zen eszena hark ezkututzen zuena. Orduraino ez bainintzen jabetu zergatik, senarra, apaiza eta haren morroia sartzean, amaginarreba gaixoa zeharo aztoratu zitzaigun. Zehatz-mehatz kontatzeko, azken astea logelako ohean zeraman emakumeak. Logelako ohean geldirik, kasik mugimendu bakar bat egin gabe. Bere bihotz sendoa noiz akituko zain nengoen ni. Baziren hainbat egun deus jaten ez zuela, eta ezpainak bustitzera mugatzen zen nik egin ahal nion faborea.

Ordea, apaiza sumatzearekin batera, kopeta eta masailak finkatu egin zitzaizkion, mingaina loditu zitzaiola irudi zuen, eta besoak eta izter meharrak astintzea besterik ez zuen nahi. Niri azken orduko espasmoak iruditu zitzaizkidan lehenik, baina apaizaren hitzak aditu eta gero, jakin nuen gizon ilun hark eragiten ziola bihotzeko minbizia amaginarrebari.

Senarra ez zen konturatu horretaz. Eztabaidan ari zen apaizarekin, eta leporatzen zion zendako ez zuen bere amarekin gertutasunik islatu. Ai ene!: eskerrak ez zuen halakorik egin! Bertzela emakume gaizoak are eta itzal sendoagoa eramango baitzuen beste mundura! Apaiz haren begirada ez baitzen parte onekoa.

Nik ere bereak eta bi erran nahi izan nizkion, baina horren ordezkerrak eman nizkion apaizari. Berorika hasi nintzaion, eta aipatu nion nolatan

arratsaldero errezatzen nuen errosarioa eta angelusa amaginarrebarekin, baina, etxeko lanak zirela eta, ez nuela izaten elizara joateko paradarik. Eta horregatik, ez nuela ulertzen gure amak azken aldian mingainean zerabilen solas arraro bat, artaleen zera hori hain zuzen, haren buru gaixoari egozten niona.

Eta, bistan denez, apaizak ez zuen gertatzen ari zena ulertu. Jainkoak bertute batzuk eman ohi dizkio gizakumeari; baina beste hainbeste ukatu ere bai. Zeren eta gizon hura, iragan erruak sumatzen azeria izanagatik, ezgaitza baino ezgaitzagoa zen etorkizuneko kulpak usaintzeko. Barkazio eske hasi balitzaigu..., ziur aski saihestu ahal izango zuen bere patua! Baina badira "barkamen" hitzaren esanahia ulertzen ez duten zenbait pertsona. Eta hantxe hasi zitzaidan gozo-gozo hizketan, bere eguneroko sermoia errepikatzen.

Erran zuen, lehenik, galdera inportante bat egina niola, denik eta galdera inportanteena akaso. Horretan zetzan-eta diferentzia, bere jarduna eta herriko apaiz arruntena desberdintzen zituena. Herrietako apaiz gehienak sobera guriak izan ohi zirela erran zigun, bere aurreko parrokoa kasu. Pertsona utziak eta ganorabakoak balira bezala aurkeztu zituen inolako lotsarik gabe. Haren ustez, apaiz haiek ez zuten kristaua behar zen moldez konfesatzen. Eta are okerrago, penitentziarik ere ez zuten erabiltzen haien bekatuak zuzentzeko. Hori guztia sekulako eskandalua otutzen zitzaion. Eta, nola ez, praktika horiek zeharo makaltzen omen zuten betiereko gaztiguari zor zitzaion beldurra. Hainbertze, ezen infernua bezalako gauza oinarrizkoa, benetako fedearen iturria, figura xume bailitzan lantzen baitzuten, paradisiko lorategiaren edo Babelgo dorrearen antzera.

Bera ez zela horietakoa erran zigun. Gizon sakratuaren misioa zela fededun bakoitzak Jainkoaren amorrua zertan zetzan konprenitzea. Eternitatea nolako gauza makurra izaten ahal zen ulertaraztea eta nolatan infernua guk uste baino gertuago izan dezakegun irudikatzea. Eta horregatik aipatzen zigula nekazarioi artaleen parabola behin eta berriz. "Zeren –erran zidan bortizki–, laborariok naturak atxikita bizi baitzarete hainbat, eta primaderaren epeltasunak, eta hostoen eta zelaien berdatzeak, denbora den baino goxoago dela sinestarazten dizuete. Ez dituzue Liburuko irudiak ulertzen. Ez duzue ulertzen nolakoa izaten ahal den kondenatuen egoitza. Ezin imajina dezakezue familiaren ez herriaren laguntzarik gabeko leku bat. Ezin imajina

dezakezue nolakoa den argirik egiten ez duen sua, emakume. Ez duzue ulertzen leku itxia, estua izango dela hura. Espresuki prestatua gizakia zigortzeko. Hori dela eta, kristau orori erakutsi behar zaio zer den labe gorria, zein den bekatoriari aurrean zabalitzen zaion arriskua. Bekatuaren arriskuan bizi denari esan behar zaio, nola, damurik gabe hiltzen bada, Jainkoak ganbara osoa beteko dion artoz, eta urtero arto ale bakar bat kentzeko aukera izango duela, eta behin arto guztiak zurituta ez dela zigorra bukatuko –besoak mugitu zituen logelaren tamaina adierazteko–, ezen berriro beteko baitio artaburuz kamara osoa..., eta berriro, eta berriro, emakume! Horren berri badakienak, zuen ama zenak bezala, burua makurtzen du Jaungoikoaren aurrean. Eta zuzen-zuzen sartzen da arrastoan eta zuzen-zuzen eginen du zerurako bidea, makila lotu zaion tomate landareak bezala."

Horrelakoa izan zen apaizaren errana gure sukaldean. Halakoak erran zituen gizon hark, nire senarrak lepotik heldu zion arte. Eta hortik aurrera gertatu ziren gertatu behar zuten deskalabru guztiak. Berehala jakin nuen ez nituela berriz sabaira igoko intxaurrak idortzera. Ez nuela izango udazkeneko sagarrak goiko solairuan, izan ere, eremu ilun hura artoaren eremua izango baitzen betirako.

BARKA DIEZAGULA Jainkoak. Barka nazala Ahalguztidunak. Baina esan dezadan nire alde ezin nuela besterik egin. Hamabi urte eskas nituen orduan, eta nagusiaren deiak niri zuzenduak izan arren, geldi-geldirik geratu nintzen etxeakoandreaki begira. Emakume biguina iruditu zitzaidan lehenbizikoz, baina, haien gatibua eskaileratan gora zeramaten neurrian, begiak zeharo aldatu zitzaizkion eta sekula santan ez ditut ahaztuko gainera bota zizkidan mehatxuak.

Geroztik makina bat leku eta jende ezagutu dut bitzta gogor honetan. Ezagutu ditut nire tankerakoak, ez hain antzekoak eta nigandik erabat desberdin zirenak ere. Eta lasai esan nezake edozein kristauk egingo zukeena egin nuela San Anton egun hartan, alegia, arineketan hasi eta ihes egin baserri beltzetan beltzenetik, artean, nagusiaren orroak aditzeari noiz utzi nion jakiteke oraindik.